



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2020KO URTARRILAREN 14KO BILERAREN AKTA

Deialdia: Lehenengoa.

Bilera: Ohikoa

Eguna: 2020.01.14

Ordua :Arratsaldeko 18:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Dabid Iturria Almandoz jn.

Eneko Sarrias Zoco jn.

Leire Mitxelena Gamio and.

Joseba Pikabea Iribarren jn.

Beñat Mitxelena Danboriana jn.

Imanol Lukanbio Larretxea jn

Bertaratu ez direnak:

Markel Jorajuria Elizondo jn

Idazkaria:

Dña. Ainara Velez Ara and.

AZTERGAIK:

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA

2019/11/19 eta 2019/11/28ko osoko bilkuren aktak onartu dira.

2.- 2020ko LAN EGUTEGIA

Ohiko osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1.- Onestea Arantzako Udalaren lan egutegia 2020. urterako. Hauek izanik jai egunak eta udal bulegoa itxita egonez.

- Urtarrilaren 1a eta 6a.
- Otsailaren 7a.
- Martxoaren 19a eta martxoaren 20a.
- Apirilaren 9a,10a eta 13a.
- Maiatzaren 1a.
- Abuztuaren 15a eta abuztuaren 17a.
- Abenduaren 3a, 8a, 24a ,25a eta 31a .

2.- Onestea Udalaren zerbitzura dauden langileen lanaldiaren banaketa, egiazko 1.592 lanorduetan finkatzen dena urteko, honela banatuak:

2.1. Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da. Orduegiaren zati finkoa 9:00etatik 14:00ak arte izanen da. Gainerako ordutegia langileek aukeratuko dute, malgutasunez, 7:00etatik 9:00ak bitarte eta 14:00etatik 17:00ak arte.

2.2. Aipatutako lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuaren beharrak direla-eta lanaldi berezia dutenei, ezta ordu konpentsazioen bat dutenei ere (txandakako lana, gauekoa, etab.), horiek lan egutegi berezia izango baitute.

3. -Aditzera ematea baliogabeak izango direla 2020. urtean, epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta lehen aipatutako udal bulegoetako jaiegunak.

4.- Udal bulegoetan jendeari arreta egiteko ordutegia onestea: astelehenetik ostiralera, 9:00etik 13:30era arte.

5. -Akordio hau Udaleko langileei igortzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko iragarki oholean paratzea.

3. 2020ko TASAK ETA TIPOAK

Udalbatzak aho batez erabakitzen du 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren tasa eta tipoak dauden bezala mantentzea.

4. ARANTZAKO UDALAREN HERRILURRETAKO APROBETXAMENDUAREN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

Ikusirik herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren aldaketak eta dagozkion azalpenak emanda, ohiko osoko bilkurak aho batez erabakitzen du:

1.- Hasierako onespena ematea, udalaren herrilurretako aprobetxamenduaren ordenantza aldaketari.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, Udalaren iragarki-taulan, web-orrian eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, herritarrek eta interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsia geldituko da eta osorik argitaratu beharko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

5. ZABOR MANKOMUNITATEARI ZUZENDURIKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Gaia azaldu egiten da eta udalbatzako kideak informatu, adierazpenik egin gabe.

6. ALKATEAREN EBAZPENAK

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen berri ematen du: 2019ko 148 ebazpenetik 167 ebazpena arte eta 2020ko 1 ebazpenetik 2 ebazpena arte. Ohiko osoko bilkurak ebazpenak berresten ditu.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 20:30 alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut:

ALKATEA,

Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,

Ainara Velez Ara

